

1.UNITATE DIDAKTIKOA: Konpostaren mundua			
INPLIKATUTAKO ARLOAK: Natura, Gizartea eta Kultura Ingurumenaren ezagutza			
GAIA: Ingurumenaren zaintza.	MAILA: LH 5-6	SAIO KOPURUA: 3 -Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuen hezitzailearen eskutik. -Bigarrena ikastetxean edukiontzi marroirik ba al duzue? Horrela balitz aztertu ikastetxeko gainontzeko zakarrontzietan ea hondakin organikoak aurkitzen diren eta ikastetxeko egoera isladatuko duen argazki bilduma egin. -Hirugarrena ikastetxean zehar zabaldu egoera eta hobetzeko ekintzak egin.	
IKAS-EGOERAREN MARKOA			
Testuingurua: Etxean sortzen ditugun hondakinen % 40a hondakin organikoak dira. Hondakin horiek edukiontzi marroira bota beharko genituzke Epeleko instalazioetan konpost bihurtzeko. Konpost hori lurzorua propietateak hobetu eta ongarrirako kimikoak ordezkatzeko erabiltzen da. Konpostaren ezagutza gizartean, ordea, erabat arrotza da eta hondakin organikoak zabor moduan ulertzeko ikuspegia aldatzea funtsezkoa da.			
Abiapuntua: Txingudiko Zerbitzuek gai organikoak jasotzeko apustu handia egin dute. Edukiontzi marroia gainontzeko edukiontziekin batera kalean kokatua dago eta bertan parte hartzeak aurrezpen ekonomikoa dakar. Horretaz gain, lorategi edota baratza duten etxebizitzetara etxean konpostagailua jartzeko aukera eskaintzen zaie, eta hainbat ikastetxek ZiSare programan parte hartzen dute haien ikastetxeetan hondakin organikoak konpost bihurtzeko konprometua hartuz. Hala ere, Bidasoa Behereko etxebizitzetara % 58ak soilik parte hartzen du hondakin organikoaren gaikako sailkapenean.		Azken ekoizpena: Ikastetxean hondakin organikoak bereizteko baliabideak dauden aztertu eta erabiltzen direla ziurtatu. Kaleetako edukiontzi grisean topatzen diren hondakinen %34a hondakin organikoak dira. Zuen ikastetxean zenbat hondakin organiko topatzen dituzue ez dagokien lekuan? Argazki bilduma bat egin eta zabaldu ikastetxean.	
PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA			
Konposta nondik datorren, nola sortzen den eta zertarako erabiltzen den ulertzea garrantzitsua da hondakin organikoak sailkatzen inplikatu daitezen. Horretarako konpostean bizi diren ornogabeak aztertzen dira, sortzen duten habitata eta bertan aurkitzen den biodibertsitatea aztertuz eta balioetsiz.			
Funtsezko kompetentziak: STEM eta HK			
Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema naturalei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenerako motor gisa, galderak eginez, jarduera zientifikoaren berezko oinarrizko trebetasunak modu egokian erabiliz eta, laguntzarekin, horien gauzatzea eta emaitzen interpretazioa baloratuz. HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harreman sistematikoak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko.	2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilita, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean eta sozialean gertatzen diren gertaerak interpretatu eta azaltzeko. 5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendu eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea.	2.5. Ikerketen emaitzak modu kooperatiboan komunikatzea, mezua eta formatua zuzentzen den erantzuleei egokituz, hizkuntza zientifikoa erabiliz, egindako urratsak azalduz. 5.1. Natura eta gizarte ingurune elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa-metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak komunikatuz. 5.2. Natura eta gizarte ingurune elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu	A. Kultura zientifikoa 1.Jarduera zientifikorako hastapenak -Metodologia zientifikoa aplikatzeko irizpideak, jarraibideak eta faseak, eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalen eta egoera errealean problemak behatzean, identifikatzean eta ebaztean. -Oinarrizko hiztegi zientifikoa; ikerketaren beharren arabera behaketa eta neurketa zehatzak egiteko tresna eta gailu egokiak erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak.

		horien artean sortzen diren harremanak ulertzea.	C.Gizarteak eta lurraldeak. 4.Kontzientzia ekosoziala -Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendekotasuna.
HELBURU DIDAKTIKOAK			
1. 2. (...)			
METODOLOGIA			
Printzipioak		Antolakuntza	
		Baliabideak	
EBALUAZIOA			
Ebaluazio prozesua:			
Ebaluazio adierazleak: 1. 2. (...)			
Ebaluazio modalitatea:		Ebaluazio tresnak:	